

Jarduera: LH 6.1.12**Dokumentua: formatu_ezaugarriak**

TXOSTENA EGITEKO IRIZPIDE OROKORRAK

1. Irizpide Orokorrak:

- Lehenengo orrian, txostenaren izenburua, egileak eta data jarrito dira.
- Bigarren orrian, txostenaren edukia azalduko da, aurkibide gisa, eduki espezifiko bakoitza dagokion orrialde zenbakiarekin erlazionatuz.
- Eduki atal bakoitzaren hasiera orrialde berri batean egingo da.

2. Letra mota eta tamaina

- Txostenaren testu guztia, izenburua izan ezik, letra mota berbera erabiliz editatuko da.
- Era berean, testu mota bakoitzari (eduki-tituluak, testu normala...) estilo berbera aplikatuko zaio beti (tamaina, kolorea...)
- Arial eta Verdana letra motak eta 10eko tamaina erabiltzea gomendatzen da.

3. Marjinak

- Orriaren goiko eta beheko marjina 3 cm-koa eta ezkerreko zein eskuinekoa 2,5 cm-koa izatea aholkatzen da.

4. Lerroartea

- Lerroartea 1,5ekoa izatea gomendatzen da.

5. Letra larría eta xehearen erabilera

- Titulu guztiak letra larriz idatziko dira.
- Edukiaren mamia letra xehez idatziko da, ortografia eta gramatika arauak kontuan hartuz.

6. Irudien trataera

- Irudiak txertatzen badira, haien erresoluzioa egokituko da, dokumentuak gehiegizko karga (Kb edo Mb kopurua) har ez dezan.